



ERASMUS+ BEKEN INFORMAZIOA LAN PRAKTIKAK SMT

HELBURUAK

- Ikasleei laguntzea Europar Batasuneko lan merkatu zabalak dituen beharretara egokitzen.
- Ikasleek gaitasun espezifikoak gara ditzaten laguntzea, gaitasun linguistikoa barne, eta lan esperientzia hartzearekin batera, herrialdeari buruzko kultura, gizartea eta ekonomia ezagutza areagotzea.
- Lantegi eta ikastetxeen arteko kooperazioa bultzatzea.
- Gazteek atzerriko ikaskuntzan zehar lortutako gaitasunak aintzatestea, kualifikazio maila altua garatzen laguntzea eta nazioarteko esperientziak ematen duen ikuspegi zabalagoa duten profesionalak formatzea.

BEKEN IRAUPENA. EPEAK.

Politeknika Ikastegia Txorierri S. Coop.-ek eskatu duen deialdiak, 13 asteko iraupeneko lan praktikak aurreikusten ditu GMHZ eta EMHZ ikasleentzat, betiere **egun osoko** ordutegiarekin. (*)

BALDINTZAK

1. EMHZ edo GMHZ bateko 2. kurtsoko ikaslea izatea, Politeknika Txorierri Ikastegian ikasturteko edozein titulazio ofizialean (ikasturtean matrikulatuta).
2. Matrikulatuta dagoen ikastetxe horretako hautaketa prozesuan aukeratua izatea, eta inongo diziplina espedienterik edo antzekorik ez edukitzea.
3. EBeko kide diren edozein 28 herrialde bateko hiritartasuna edukitzea, eta parte hartzen duten herrialde batekoa ez izanda ere, Politeknika Txorierri Ikastegian matrikulatuta egotea.
4. Ezin izango da aldi berean beste programa edo beka batean parte hartu.
5. Erasmus praktiketako ikasleek, **Lan Praktiken Ziurtagiria DERRIGORREZ** ekarri beharko dute, bukaeran dokumentua aurkeztu beharko dutelarik.

(*) Enpresa bezala bere aktibitatea arlo publiko edo pribatuan garatzen duen edozein erakunde ulertzen da, bere tamaina, errejimen juridikoa edo jarduten duen sektore ekonomikoa edozein izanda ere, ekonomia soziala barne. (oinarri legala, 2. artikuloa, 25. zenbakia).

EZ dira harrera erakunde bezala honoko enpresa hauek hartzen:

- EBeko instituzio edo EBeko beste erakundeak (zerrenda osoa hemen: http://europa.eu/institutions/index_es.htm)
- EBeko programak kudeatzen dituzten erakundeak (interes gatazka eta/edo finantziario bikoitza saihestearren)



- *Jatorrizko herrialdeko instituzio edo ordezkariak publikoak, hala nola, enbaxadak, kotsulatuak, institutu kulturalak, ikastetxeak, etab, programaren nazioarteko baldintzaren derrigortasunagatik.*

HAUTAGARRI DIREN HERRIALDEAK

Herbehereak (Eindhoven); Irlanda (Cork); Italia (Milan, Palermo); Polonia (Krakovia, Varsovia, Rzeszow); Txekiar Errepublika (Praga); Malta.

FINANTZAKETA GMHZ-KO IKASLEENTZAT

1. ERASMUS+ poltsa ekonomikoa: egonaldiko eta hilabete bakoitzeko. *Ondoren adierazten diren zenbatekoak egonaldi osorako dira:*
 - a) **1. Taldea (1200€):** Irlanda
 - b) **2. Taldea (1050€):** Herbehereak, Malta, Italia
 - d) **3. Taldea (900€):** Polonia, Txekiar Errepublika
2. Eusko Jaurlaritzak laguntza gehigarria ematen die GMHZ-ko ikasleei (kopurua oraindik zehaztu gabe).
3. *Kurtsoan zehar Eusko Jaurlaritzako beka bat jasotzen duten ikasleek, gainera 100€/hilabete ere jasoko dituzte, hau da, 300€ gehiago guztira.*

ORDAINKETA PROZEDURA

Onuradunei, adierazten duten kontu korrontean egingo zaie poltsa ekonomikoaren ordainketa, transferentzia bidez eta bi epetan (kontu horren titular edo titular-kide izan behar dira):

1. Poltsaren %80a enpresan hasi aurretik. (**)
2. Gainontzekoa egonaldiaren amaieran. (**)
3. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza urrian ordainduko da, gutxi gorabehera. (***)

FINANTZAKETA EMHZ-KO IKASLEENTZAT

Egonaldiko kostuak %100ean estaltzen ditu:

- Bidaia eta ostatua (Heziketa Teknikoko Elkartea – HETEL-ek antolatuta)
- Sakela dirua (garraioa/elikadura) – 3 ordainketa: hasierakoa, tartekoa, amaierakoa

*(**) Ordainketa guztiak egiteko, dagokien epeetan behar den dokumentazioa aurkeztea ezinbesteko baldintza da.*



Cofinanciado por el
programa Erasmus+
de la Unión Europea



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

*(***) Politeknika Ikastegia Txorierri S. Coop.-ek ko-finantzaketaren zati bat aurreratzen die ikasleei, bekaren % 80arekin batera.*

Praktikari justifikatu gabeko arrazoi bategatik uko egiten bazaio edo bertan behera utziz gero, ordura arte jasotako **diru kopurua OSORIK itzuli beharko da**. Gainera, ikasleak **ez du Lantokiko Prestakuntza (FCT) modulua aprobaturiko**. Uko egitearen arrazoia behar bezala justifikatzen bada, egondako denbora errealarri dagokion kopurua jasoko da.